

EUSKARAZ

2020

GAZTE

LITERATUR LEHIAKETA

SARIAK

IPUINAK

1. SARIA: **Gaugiroan**
Iñaki Iturain

2. SARIA: **Trena eta tratua**
Libana Taboada

3. SARIA: **On eta in**
Garazi Urretabizkaia

Accesita: **Gogoetak**
Nadhet Arruti

Accesita: **Zure amona garaira egokitzeko gida**
Ane Etxabe Usandizaga

OLERKIAK/BERTSOAK

1. SARIA: **Parentesia**
Ainhoa Mujika

2. SARIA: **Neguan bero**
Garazi Urretabizkaia

3. SARIA: **Eskerrik asko, DO RE NI!**
Rosi Lazkano

Accesita: **Berandu**
Goiuri Unanue

Accesita: **Normaltasuna, askatasuna eta geldialdia**
Esther Arruti

GAUGIROAN

Iñaki Iturain

Sustoa oraindik ez zait guztiz pasatu. Ez nuen horrelakorik espero. Atzo elkartu ginen biok. Nire soziedadean izan zen, San Juan Elizpen, Txominek horrela eskatuta. Lan handirik, behintzat, ez zidan eman, berak ekarri zuen-eta afaria etxetik prest. Pisuzko arrazoia zuen horretarako: ezin du edozer jan, gaixo dago. Susmoa banuen horrena, oso argal ikusten nuen kalean aspaldi honetan; baina atzo jakin nuena ez nuen espero. Minbizia du eta, gauzak okerrera egin baino lehen, nirekin egon nahi zuen, nirekin bakarka, eta nire txokoan.

Gaurbiharamunarekin nago, aje handiarekin. Ez noski afaldu genuenagatik, dena berde eta arina izan zen-eta. Hala agindu omen dio medikuak. Eta Txomin orain, garai batean ez bezala, men egiteko dago, esaten diotena onartzeko, bizirik segituko badu, ditxosozko minbiziak utziko dion tartea ahal duen guztia luzatu nahi badu. Biharamuna Txominen ahotik entzun nuenak ekarri dit, eta hura digeritzeko edan behar izan nuenak.

Iragana astindu nahi izan zuen. Minbiziarena aitortu ondoren, askatu egin zen eta iruditu zitzaidan bere buruari baimena eman ziola niri edozein galdera egiteko; ordura arte sekula egin gabekoak ere bai. «Gogoratzen al haiz zer zegoen garai batean hor goian?» galdetu zidan, burua altxatuta nire atzeko paretan zintzilik zegoen koadroari begiratuz. Han orain herriko traineruaren irudi bat dago, orain dela urte batzuk bandera irabazi zutenekoa; baina berehala gogoratu nintzen zer zegoen garai batean paretan hartan: Francoren koadroa.

Horregatik nahi zuen Txominek atzoko afaria Elizpe elkartean egin. Horretaz hitz egin nahi zuen. Hasieran urduritu egin nintzen. Txomine ezer erantzun aurretik, jaiki eta kopatxo bat prestatu nuen, patxarana. Berak ez zuen nahi. Isilunea luze zihoan, nik kopatxoa erdira hustu

nuen arte. «Gogoratzen nauk, bai, nola ez ba! Horretaz hitz egin nahi al duk?».

Bai, horretaz hitz egin nahi zuen, eta horretaz mintzatu ginen, luze, orain dela berrogeita gehiago urteko uda bero hartako gau ilun batean gertatu zenaz, gertatu zitzaidunaz. Orduan nire aita zen Elizpeko sozio, oraindik ere karkara ilun horretan segitzen duen elkartekoa. 1975. urtea zen, Franco hil zenekoa. Nik, orduan 19 urteko gaztea, lanean pasatu nuen uda, gauez, Anton Enean, gure aita zenaren okindegian. *Panaderoa* zen, eta ogia gauez egiten da, egiten zen orduan behintzat. Ez nuen gustuko gaueko ordu bata eta erdietan jaiki eta ordu bietan lanean hastea. Amorragarri zitzaidan nire lagunak oheratzen ziren orduan ni jaikitzea, baina hala behar zuen. Etxean aho asko ginen elikatzeko, eta horixe eskatu zidan aitak: uda hartan ogibide bilakatzeko ogi egitea. Asko ikasi nuen, ogibideaz gain.

Gauak oso topaleku bitxia bihurtzen zuen Anton Enea. Hango labearen epeletara tipo xelege asko elkartzen zen orduan. Egun hasiberriaren lehenengo orduetan, Txirla diskotekatik eta taberna itxi berrietatik aterata etxerako gogo gutxi zuen jendea: gazteak, mutilzaharrak eta etxeko ohean lo zutenarekin aspertuta zeuden gizonak. Nire kuadrillakoak ere bai inoiz, bixi-bixi eginda, txantxetan azken kubata hartu nahi zutela esanez. Txominek xaxatzen zituen, «goazen panaderoarengana», nire bizkar barre egiteko.

Serenoa ere etortzen zen, txapel gorria buruan eta borra gerritik zintzilik, gautxoriak tabernatik uxatutakoan. Eta eskerrak hari! Harengatik geratzen zen hainbat eta hainbat kanpoan, gurean sartu gabe. Eulogio zuen izena. Gizon fuertea zen, baserrian ohitua, gure aitaren adin bereko gizona, gerran Francoren armadan elkarrekin ibiliak.

Serenoren ordu bertsuan etortzen ziren guardia zibilak ere, trikornio esaten zioten txapel

beltz oker hura buruan eta fusila bizkarrean, zer suma, hondartza ondoko kasetan beste pikoleta bikote baten erreleboa hartutakoan. Garai hartan kontrabandoa zen asko, eta gaueko «garraiolaria» zaintzeko-edo jarria zuten kasetan han.

Laurak aldean Basilio taxilaria bertaratzen zen, laster bezero izango zituenen bila. Handik gutxira etortzen ziren neskak, Biotzatik, ate gainean *Night Club* jartzen zuen herriko putetxetik. Gure aitak *go-go* esaten zien, hitz hori zuen gustuko. Neskak, lana bukatuta, ogia hartzera etortzen ziren, etxeratu aurretik. Haietako batek opil gozo egin berri pare bat ere eramaten zuen, seme-alabentzat. Basilioen taxia hartuta joaten ziren, herriko gizona plazera ematen egindako lanaren nekea deskantsatzera.

Haietako bat ez dut bizi naizen artean ahaztuko. Dina zuen izena, Almeriako zen. Ederki gogoan dut gau hartan gertatu zena, atzo izan balitz bezala. Aldi hartan ohi baino lehenago etorri zen okindegira, eta bakarrik. Aitak, neska sartzen ikusita, esan zidan harengana joateko, Basilio etorri bitartean: «Joan hadi horrengana, badaezpada ere, horiekin ez zagok fidatzerik, gu akordatzerako igual kajoia hustuko ziguk eta». Aitak ogi-ore puskak pala gainean jarrita labean sartzen segitzen zuen bitartean, ni mostradore aldera joan nintzen, kajoia zaintzera.

Elkarri egun on esanda, neskarenak izan ziren hurrengo hitzak: «Guapo, dame un pan de leche, el más caliente que tengas», eta, emeki, mostradorearen barrualdera sartu zen, eta opilak usaintzen hasi. Urduritzen hasi nintzen, «aitak ikusiz gero ere». Neskak, opilak utzita, hurbildu egin zitzaidan, nire hankartean pausatu zuen eskua, eta ahoa nire belarrira hurbilduta esan zidan: «Este es el más caliente», eskuarekin nire gorputz-atal puztua lastantzen zuen bitartean. Gertutasun hartan, bere eskote zabalak erakusten zizkidan opil ederrak eskuetan hartzekotan egon nintzen. Labe gorian baino beroago sentitu nintzen, legamiak harrotutako ogia baino puztuago. Aitak moztu zuen aztoramendua, guregana etorri eta Dinari esanez kalean ez zela hotzik eta han itxaroteko Basiliore; eta niri, berriz, lanera sartzeko eta txorakeriak alde batera uzteko.

Aita ederki konturatu zen zer gertatzen ari zitzaidan neska harekin. Uste dut horregatik

eten nahi izan zuela. Seguru pentsatu zuela: «Zer egiten du nire semeak horrelako pu... neska batekin!». Segidan, neska kalera atera eta gero, ogia labean sartzen segitzen zuen bitartean, esan zidan: «Neska nahi baldin baduk, herrian asko zaudek hori baino politagoak». Horiexek izan zituen azken hitzak; geroztik ez genuen sekula gaiaz ezta hitz erdirik ere gehiago esan. Orduko nire isiltasunaz damutzen naiz, gogora datorkidan bakoitzean. Gau hartan ikusi nuen azkenekoz Dina.

Handik egun batzuetara, ikusita Dina ez zela etortzen okindegira, erabaki nuen neu joango nintzela harengana, Biotzan sartuko nintzela aurreneko aldiz. Lagun bati esan nion, Fermini, ea lagunduko zidan hara, hark ordurako ondo ikasia baitzuen Biotzarako bidea. Baina esan nionean zergatik joan nahi nuen hara, erantzun zidan alferrik zela, Dina ez zegoela han, joana zela. Hura jakiteak bihotza erdibitu zidan. Fermin bera ere konturatu zen horretaz: «Motel, motel, Biotzan neska gehiago ere bazagok, eta Dina baino ederragoak ere bai!», kontsolatu nahi izan ninduen, alfer-alferrik.

1975eko uda hartan gauean izaten genituen bisitarien erreposoa eginda, parrandazale, sereno, guardia zibil, taxilari eta Biotzako neskez osatutako giza fauna berezi hura gogoratzen hasita, ia ahaztu zait zer kontatzen ari nintzen ere. Atzoko afariaren ostean, Txominek galdetu zidan ea gogoratzen nintzen zer zegoen soziedadeko paretan, orain traineru irabazlea dagoen tokian. Txomini aitortu nion baietz, ondo gogoan nuela gure gazte-garaian han Francoren koadro bat zegoela; eta, ondoren, adarretatik heldu nion zezenari, Txominek hitzez esan gabe egin zidan galderari. Banekien zer jakin nahi zuen: nor zen Francoren koadroa erriora bota zuena, balentria haren heroia. «Nork bota zuen Franco uretara?», horixe ari zitzaidan galdetzen Txominen begirada.

Nire burua gau hartan gertatutakoen irudiak ekartzen hasi zen: aita paseoa egitera joana zen, Eulogio serenoarekin batera. Gauero egiten zuten, ni lanean hasi eta ordu erdira. Ogitarako masa egiteko, bi zakukada irina bota, behar adina ur eta gatz pixka bat gehitu eta, nahasketa hari legamia erantsita, oreak ordu erdia behar izaten zuen harrotzeko.

Tarte hartan aita eta Eulogio kofradiaraino joaten ziren, ttipi-ttapa, hango arkupeetan zegoen barometroari begiratu bat ematera, ordu gutxitara argituko zuen eguneko eguraldiaz barometroak zioena aztertzeraz. Bien artean eguraldiaren iragarpena eginda, lasai itzultzen ziren kofradiatik, aita okindegira eta serenoa Goiko Kaleko erronda egitera.

Aita eta serenoa gaueko pasean ibili ziren bitartean, Fermin etorri zen. Haren lasaitasunak harritu ninduen, ni bera baino urduriago nengoan. Arratsaldean adostu genuen bezala, nik giltza eman nion eskura, Elizpe elkartekoa, aita apal batean ezkutatuta izan ohi zuena. Aita tarteka sagardoa hartzera joaten zen soziedadera, irin-hautsak emandako egarria leuntzeko. Azkar egin zituen lanak Ferminen, ordu laurdena baino lehen han zen berriz bueltan giltzarekin. Di-da.

Eguerdirako zabaldua zegoen herrian gauean gertatutakoa. Esamesa eta harrabots handi samarra eragin zuen herrian Francoren koadroa elkarretetik desagertzeak. Huraxe izan zen gai nagusia plazako arrantzale zaharren hitz-aspertuetan, emakumeen ile-apaindegiko txutxu-mutxuetan. Gauean, ohetik jaiki eta lantegira iritsi orduko galdetu zidan aita ea nik zerbait ba ote nekien. Nik ezetz, bezperan inor ez zela agertu bera serenoarekin moilan ibili zen bitartean. Uste dut sinetsi egin zidala, ez zidala igarri. Hala ere, ni harrotu egin ninduen aita ni horretarako gauza nintzela pentsatze hutsak.

Aitaren galderaz gain, izan ziren beste batzuenak ere hurrengo gauean. Guardia zibilen bisita izan genuen Anton Enean. Aita esan zien guk ez genuela ezer arrarorik ikusi gauean. Haiek joan orduko esan zidan aita: «Hi ez hadi politikan sartu, hori oso zikina duk eta». Gu ez ginen susmagarri guardia zibilentzat, aita gerra irabazi zutenetakoa zen-eta. Nik urduri sumatu nuen, txapelokerrak bezala. Haiek aztoratuta zebiltzan azkenaldian. Hiru hilabete lehenago, Aberri Egunean, elizako kanpandorreko goiko puntan egunsentiak ikurrina argitu zuen, herritarren aurrean. Egun hartako protagonista nagusia izan zen ikurrina. Goiz-eguerdi hartan inoiz baino jende gehiago ibili zen moilan, atzera-aurrera, kanpandoretik zintzilik zegoen hiru koloreko bandera askorentzat ezezagun hari begira, gehie-

nak poza aurpegitik ezin ezkutatu; agenteak jendea moilatik eta plazatik botatzen hasi ziren arte, «¡Venga, zeñoree, muévante de aquí!».

Bi guardia zibil igo ziren kanpandorrera, eskuko eskailera bat eskuan, ikurrina zegoen tokiraino iritsi nahian. Horretan ari zirela, hamaiketako kanpaikadak jotzen hasi eta hartu zuten sustoarekin ia erori ziren handik. Erridikulu ederra egin zuten: hantxe egon ziren ia bi orduz trabatuta, ikurrina jaitsi ezinik, nahiz eta egun argitan eta eskailera izan. Bandera hura gauez han jarri zuen anonimoa heroi bihurtu zen ordu gutxian, ospe handia irabazi zuen herritarren aurrean.

Handik egun gutxira hartu zuen osteraren protagonismoa ikurrinarenak. Fermin atxilotu eta herriko kuartelera eraman zuten, ekintzailea hura zelakoan. Sekulako jipoia eman zioten; pasara hartuta atera zen handik. «¿Pero, chaval, tu no sabes que esa bandera es ilegal?» galdetu zion kuartelean buru egiten zuen sarjentuak, eta zer da eta Ferminen gallegoarena eginez erantzun, beste galdera batekin: «¿Y el contrabando de tabaco no es ilegal o qué?». Horrek bere onetik atera zuen sarjentua, eta ero baten moduan aritu zitzaion ostikoka, ukabildakada, jo eta jo.

Gure kuadrillara sekulako sukarra ekarri zuen Fermi egindako basakeriak. Berak ez zigun behin ere esan bera izan zela ikurrina jarri zuena, ezta bera izan ez zenik ere. Baina bandera bat jartzea besterik ez zen hura; eta kuarteletik matxakatuta atera zen, txikituta. Zerbait egin behar genuen; hala zioten kuadrillako sutsuenek: «Akaso txikitu egingo gaituzte, baina garaitu ez, aurrera egin behar dugu».

Orduan bururatu zitzaidan Francoren koadroa uretara botatzeko ideia. Ez ginen gauza izan arraunlariek udaletxeko balkoitik herriaren aurrean bandera espainola erakustea ebitatzeko, baina hori baino latzagoa egingo genuen: diktadoreari ostikoa eman eta putzura bota.

Orain badakit zergatik bururatu zitzaidan Francoren irudia uretara botatzea, zerk sortu zuen nire baitan ideia hura: hiru hilabete lehenago kanpandorreko ikurrina jarri zuen herritarren aurrean hartu zuen ospeak. Hala ere, ideia izan bai, baina gero ni ausartu ez eta koadroa Ferminen bota zuen. Hark potroak zituen, eta gainera

bizkorra zen, ikurrina kanpandorreen nola jarri zuen bururatzeko hutsak erakusten du hori: arratsaldeko mezan elizako atzeko konfesionarioan ezkutatu eta gau osoa elizan pasatu zuen, ilunpetan kanpandorrera igo, han ikurrina sokaz lotu eta, apaizak goizeko zazpitako mezarako eliza zabaldu zuenean, inork ikusi gabe atera zen kalera.

Baina ez nintzen bakarria izan herriaren aurrean oilarrak baino harroago agertu nahi izan zuena. Txomin ere saiatu zen, beste bandera baten bidez, irailean estropalariak Donostiatik ekarri zutena. Okasioa ekarri zuen herrira, baina aurrea kuadrillara. A zer nolako diskurtsoa bota zigun Txominek: «Ezin dugu onartu piper-poto hori irabazi dutelako herriak hori ospatzea. Ezin diegu errezibimendurik egin arraunlariei. Besterik ez dugu behar, gutako batek bizia arriskuan jarri ikurrina kanpandorrera igotzen, putakume horien atzaparretan kriston jipoia jaso, eta gu ospakizunetan!». «Politika ez diagu arraunarekin nahastu behar», bota zion beste lagun batek. Denak ez ginen ados, baina gehienak konbentzitu gintuen alirona boikotatzeko. Horretan trebea zen.

Huraxe izan zen gure kuadrillako aurreneko eztabaida politiko gogorra, lehenengo zatiketa. Gutako batzuk oktabilen bidez-eta saiatu ziren, baina ez zuten lortu herritarrek errezibimendurik ez egitea. Gure herrian arrauneko banderak, piper-potoa izanda ere, inportanteagoak ziren «gure herriaren askatasun-bidea» baino, eta kuadrillako batzuentzat ere bai. Hala izan ziren, handik urte gutxitara, Txominentzat ere.

Atzo gertatuta bezala ditut gogoan diktadorea hil zen urte hartako udakoak: ikurrinarena, Francorena, piper-potoarena eta... neska eder harena... Baina atzo Elizpen afaldu ondoren Txominek egin zidan galderak erantzunik gabe segitzen zuen: «Nork bota zuen koadroa putzura?». Kostatu zitzaidan zer erantzun erabakitzea, urte askotako isiltasuna zegoen bion artean, susmoak, usteak, zalantzak...

Fermin aspaldi hil zen. Nik badakit ez ziola sekula inori esan zer egin zuen gau hartan soziedadeko irudiarekin. Esaten ibili gabe, Fermin egin egiten zuen. Edozertan. Beti prest zegoen ekintzarako: gaez itsasoan barku handi batetik kaja batzuk hartu eta ekarri behar baziren

lehorrera, ekarri eta kito; Franco erriora bota behar zela, ba, bota. Ezerk ez zuen izutzen. Edozertara pronto izaten zen. Zera guztiei ekin zien gatzetatik: hamasei urte bete zitueneko, erre egiten zuen, alkohola edan, eta Biotzara joan; kontrabandoko diruak ematen zion horretarako ere. Bizitza labur baina betea hobetsi zuen, luze eta aspergarriaren aurretik.

Eta gazte hil zen Fermin. Ziztu bizian egin zituen mundu honetakoak. Tiroketa batean hil zuten, arroka arte batean; orduan ere zerbait zekarten itsasotik lehorrera, baina aldi hartan poliziak zituzten zain. Fermin ihes egiten saiatu zen, baina han gelditu zen betiko, oso operazio polizial ilunean.

Beste galdera batekin erantzun nion Txominen galderari: «Inporta al dio zeinek bota zuen gau hartan Francoren koadroa putzura?» Eta galdeztzen hasita, segitu egin nuen: «Eta zeinek jarri zuen ikurrina elizako kanpandorreen? Eta zeinena zen kuadrilla apurtzea ekarri zuen arraunzaleen festa boikotatzeko ideia hura? Inporta al dio?» Ni seguru nengoen hobe genuela biok ere isilik segitzea. Zer genuen irabazteko, atzo arte isiltasunaren ganbaran giltzapetuta egondakoen aitorpena egiten hasita?

Baina Txomin ez zegoen isiltzeko. «Hara, ni aurki bania hemendik, ez zaidak asko geratzen, eta gauza batek minbiziak berak baino gehiago erretzen zidak barrena: Uda hartako gertaera bat oraindik ere argitu gabe egoteak, ezin diat eta burutik kendu. Orduan gertatutakoa ezin diat aldatu, ez zagok nire esku, baina hura hiri azaltzea bai».

Zutituta, ordurako hutsik neukan kopa betetzera joan nintzen barrara, oraingoan koñakaz. «Hik ez al duk nahi ezer? Hartzak trago bat!». «Ea, ba, ekatzak zerbeza bat». Koñaka eta zerbeza mahaira ekarrita, Txominen aurrez aurre eseri nintzen mahaira, berrogei eta gehiago urte lehenago Francoren koadroa zegoen tokiaren azpian.

Txomin bera hasi zen hizketan, garagardoari tragoxka bat kenduta: «Nik ez nian jarri ikurrina kanpandorreen, baina hi ere ez haiz Franco putzura bota zuena. Hori dena hik ondo dakik; nahiz eta harro samar ibili hintzen, kuadrillakoek uste zutelako hik bota huela koadroa. Ez zio

inporta, hik ere jaso huen-eta hirea».

Koñaka erdiraino jaitsi nuen kopan. Banekien, horretaraz gero, kuarteleko egun beltz hartakoa ere aterako zuela, eta izutu egin nintzen. Ni ere eramán ninduten kuartelera; Francorena soziedadetik desagertu eta egun gutxira izan zen. Fermin kanpora joana zen ihesi, eta guardia zibilek hura harrapatu ez zuten, niri bota zidaten atzaparra; baina ez niri bakarrik. Sartu nintzenerako han zeukaten Txomin ere, aulki batean jarrita.

Kuarteleko gela batean zen, sartu orduko hantxe ikusi nuen Franco, hango paretako koadro handian. Txomin han topatuta, sekulako sustoa hartu nuen; egia esanda, lasaitua ere bai. Franco Elizpetik nork kendu zuen jakin nahi zuten. Zumezko makila jarri zidaten eskuetan. «¡Tú vas a hacer el trabajo: dale a tu amigo, hasta que cante. Si tú no le das, te daremos nosotros a ti!». «¿Quién tiró el cuadro a la ría?» galdetzen zioten Txomini. Haren isiltasunaren aurrean, «¡Dale!». Nik jaso nuen aurreneko matrailekoa. «¡Dale!». Orduan eman nion lehenengo zartada zumitzarekin bizkarrean Txomini, bi guardia zibilek ezker-eskuinetik heltzen ziotela.

«¡Más fuerte!» oihukatzen zidan sarjentuak. Ez dakit zenbat eman nizkion, baina oraindik gogoan ditut Txominen oihu lazgarriak, eta zumitzak haren bizkar biluzian ateratzen zuen hotsak eta azalaren gorriak eragiten zidaten samina. Eulogiok salbatu gintuen tortura hura luzatzetik; aitak bidalita kuartelean agertu zen, korrika, esanez ezinezkoa zela gu izatea soziedadeko koadroa handik kendu zutenak, bestela berak ikusiko gintuelako.

Txominek aurrera egin zuen: «Hik pentsatuko duk nik gorrotoa diadala egun hartakoagatik. Ez duk hola. Nik ere bazekiat zer den hori, zer egiteko gauza garen denok, behartzen gaituzte-nean. Baina gaur ez gaituk elkartu horretaz hitz egiteko». Lasaitu ederra ekarri zidaten Txominen hitzek. Bostekoa luzatu nion. «Eseri, eseri!» esanaz baretu nahi izan zuen momentuko nire zirrarara, bostekoari heldu gabe.

—Gogoratzen al haiz uda hartan herrian izan zen neska hartaz? —nire isiltasunak segitzeko aukera eman zion—. Uste diat Dina zuela izena.

—Dina? —nik—. Hik ezagutu al huen, ba, Dina?

—Ezagutu nian, bai. Ferminekeraman nindian behin Biotzara. Han ezagutu nian. Xanpaina edaten egon gintuan, gaueko lana ondo aterata Fermin patrika ederki beteta zebilen batean. Hura beste neska batekin joan zuan dantzan egitera, pega-pega eginda. Ni Dinarekin geratu ninduan. Neska ederra zuan, goxoa. Ez zekiat zerk zoratu ninduen gehiago, kopa barruko xanpainakedo neskaren edertasunak. Nik ere dantza egin nahi nian, baina eskatzeko zorian nintzela, hire aipamena egin zidaan: «¿Tu conoces al hijo del panadero, verdad?»; berehala konturatu ninduan hitaz ari zela. Papertxo bat atera zian sostenetik.

Eta, hori esatearekin batera, Txominek eskua patrikan sartu eta paper bat atera zuen, eta niri erakutsi, zimur-zimur egindako papertxo bat.

—Sinesten ere zaila duk, baina paper hauxe duk Dinak gau hartan eman zidana. Hiri emateko eman zidaan. «Se lo darás al hijo del panadero ese bruto, verdad? Hace tres días me echó a la calle de la panadería. Yo tenía esta nota preparada para que se la diera Fermintxo, pero me fio más de tí. Seguro que tu eres más responsable». Niri eman zidaan enkargua hiri emateko. Sobre baten barruan zegoan, esan zidaan nik ez irakurtzeko barrukoa. Eta nik hala agindu nioan: ez nuela zabalduko eta hiri emango niala. Baina berrogei urte pasatu dituk eta hik oraindik ez duk irakurri Dinak hiretzat idatzitakoa. Ez zian kartero ona aukeratu.

Kopan gelditzen zen koñaka trago batean hustu eta papera eskutik hartu nion Txomini. Zabaldtu egin nuen bere tolesduratik. Hitzik esan gabe, irakurtzeari ekin nion:

Hola, biotza:

No sé muchas palabras en vasco, pero ya sé lo que quiere decir biotza: lo que eres tú, un encanto, corazón. Te envió esta nota a través de tu amigo Chomin, porque he decidido no ir más a vuestra panadería. No aguanto que me traten así, no puedo. Me dolió que tu padre me echara a la calle. El taxi de Basilio ahora me recoge aquí, a la salida del club. Pero me gustaría estar contigo. Quiero charlar un rato. Puedes

venir por ejemplo el sábado, que no trabajas. Te espero.

Dina

Izu-ikara sentitu nuen gorputzean. Pasatuta nengoen. Eserita nintzelako, bestela zerraldo eroriko nintzen lurrera. Ezin nuen sinetsi. Txomin, nire egonezina eta amorrua antzemanda, arrazoitzen hasi zitzaidan ohar hura nireganatzeko enkargua berrogei urtez atzeratu izana: «Biotzako gau hartan, Dinak niri hiretzako karta eman eta joan egin zuan, niri masailean musu bat eman eta <agur, guapo> esanda. Ni kalera atera ninduan, Fermini itxaron gabe. Etxera joan eta, oheratuta, ezin nitian begiak bildu; ez nian onik izan Dinaren hitzak irakurri arte. Baina irakurri eta gero ere ez. Sekulako amorrazioa sentitu nian Dina hiregan fijatu zelako. Gogoratzen nauk nola pentsatu nuen: Horixe bakarrik behar diat, kuardelean ostiak eman zizkidanari nik orain karta hau eramatea! Horregatik ez diat eman bostekoa lehen. Ez zekiat orain, hori entzun eta gero, eskua emateko prest egongo haizen. Barkamena eskatu nahi diat».

Isilunea luzatzen ari zen. Dena ulertu nuen: Txomini ez zitzaion galtzea gustatzen. Txikitan aurrena izan nahi izaten zuen beti. Sarri gogorarazten zidan bera izan zela kuadrillan zubiko barandaren gainetik erriora murgil botatzen lehena; bera izan zela, baita ere, neska bati musu ematen aurrena. Eta Dinarena porrot moduan hartu zuen, Dinarentzat ni haren aurretik nengoen. Orduan, hori onartu ez eta karta ezkutatu zuen, eta orain nire barkamena nahi, lasai hiltzeko. Zer egin behar nuen? Zer egin nezakeen? Barruko korapiloa askatu ezinik nengoen. Kopa berriro betetzera joan nintzen barrara. Hari

trago batean erdia kenduta, mahaira itzuli nintzen berriz. Hantxe segitzen zuen Txominek. Konturatu nintzen berak nik baino premia handiagoa zuela lasaituko zuen zerbaitena.

—Nahi al duk zerbeza bat?

Txominentzako garagardea edalontzira husten nuen bitartean, pentsatzen jardun nintzen zer erantzun behar nion. Baina berriz ere aurreratu egin zitzaidan hitza hartzen.

—Etxera bueltatu nintzenean...

Egia, ahaztua nuen baina Txomin Iparraldean egon zen: kuardelekoa berriz gertatzeko beldurrez ihes egin zuen hara eta, han hiru urte pasatuta, amnistiarekin etxeratu zen.

—Bolada batean gogoan izan nian hiregana joan, karta eman eta zer gertatu zen azaltzea. Baina orduan ez nian egin, ez ninduan ausartu eta, gero, horrenbeste urte pasatuta, ez zian zentzurik.

Kopatxoaren beste erdia eztarriratu nuen. Txarrenari ere alde ona bilatu behar zaiola badakidalako izango da, burura etorri zitzaidan Txominen aitorpenak balio izan zidala jakiteko Dinarena benetan gertatu zela, hezur-haragizko neska izan zela gau hartan une labur batez nirekin egon zena okindegian; aspaldi ametsa izan ote zen etsitzen hasia bainintzen.

Eta gaur biharamuna dut, berrogeita gehiago urteko ajea. Pasatzen zaidanean, berriz egon behar dut Txominekin, berandu izan baino lehen. Seguru nago atzo ez zidala dena esan. Lehen Dinarenganako zubia eraitsi zidan bezala, hura altxatzen lagundu behar dit orain, egia baldin bada behintzat lehen egin zidanak min ematen diola, eta Dinaren arrastoren bat baldin badu. Ba ote daki nora joan zen?

TRENA ETA TRATUA

Libana Taboada

Udazken amaierako hego-haize epela dabil firin-faran gaur ere. Atera naiz etxetik eta Rafaela eta biok bagoaz plazara, esne marmidak din-din. Gaur ez daramagu pisu askorik, eta astoa bixi-bixi doa. Tarteka moteldu ere egin behar dugu, estropezu egin eta esnea botako ote duen bel-durrez. Esnea galduz gero... ene! orduan bai ez dudala ama konbentzituko Donostiara esne-saltzera joaten utzi nazan. 10 urterekin, kapaz naizela behin eta berriro esaten diot, baina ez da nitaz asko fio. Rafaelak esan zidan Donostian denda apartak, andere dotoreak beren soineko ikusgarriekin, eta ederki zaindutako zaldi dirdiratsuak ere ibiltzen direla kalean gurdi ikaragarriekin, Bulebar eta Askatasunaren hiribidetik.

—Donostia ezagutu behar duzu, Balbina! Ikaragarria da! Han bizitzera gelditu nahiko duzu! —gogorarazten dit tarteka. Bera astean behin joaten da amarekin, enkargu pare bat egitera herritarrentzat.

Momentu batez, gure astoa zaldi zuri eder bihurtu eta marmitez beteriko gurdia, egurrezko gurdi dotore bat dela imajinatu dut. Beherantz begiratu eta, soineko urdin luze eta dotorea jantzi diot neure buruari. Gerriko, kapela handi eta guzti. Rafaelari soineko... berdea! jantzi diot. Eta momentu berean barrea irten zait, ibai ondoko bidetik, gure amantal zulatu eta zikinei so eginez. Eta Rafaelaren ileak! Kar kar kar...

Plazara iritsi gara eta giro ederra dago: Kolon Txikiko atean gizonezkoak eta gazteak zahatetik zurrutean, hamaiketako eginez. Emakumeren bat ere badabil plazan, patata eta porruz beteriko saskiekin, uzta saldu nahian. Irin saltzen ere badabil nor edo nor. Txakurrak gizonezkoen ogi-apurra jan nahian dabilta, baina horietako bat ostikoz bidaltzen saiatzen da. Gizon batek jokaera aurpegiatzen dio: «Alde egiok, Joxe! Ez

diat halako txakurrik sekula eduki eta, alde egiok! Hik baino errespetu gehiago merezi dik horrek!». Ingurukoen barreak ez dira batere disimulatuak eta festa-giroan daudela nabarmena da.

Rafaela eta biok esnea partitzen hasi gara: plazan hiru marmita, mataderiko Eliasi bi, Palotan bat, apaizari beste bat... Gaur ez genituen asko eta azkar antzera banatu ditugu bederatzi marmidak. Iturrian astoari ur pixka bat eman eta etxerako bueltari ekin diogu.

Bidean lehengusina eta biok txandakatuz goaz gurdian esertzeko. Aurrena bat, eta gero bestea. Ortzakarainoko bidea luze egiten zaigu eta horrela egiten dugu beti.

Etxera iritsi eta amari muxu eman diot. Amak ikusmena galdu zuen gaztetan, eta badirudi itzal beltza izan duela ordutik soinean. Ama bakarra izateaz gain, itsua. Ameriketara joatekotan egon zen, baina, daukan ezgaitasuna kontuan hartuta, ez zuen zereginik etxetik kanpo. Zer egingo zuen, ba? Ezinezkoa.

Ikusmenik ez du, baina, batzuetan, gezurra dirudi. Soinurik txikiena ere entzuten ez du, ba? Gauez, gose esnatu izan naizenetan, esne-basokada bat hartzera joaten naizenetan, beti harrapatzen nau.

—Balbina! Ohera segituan!

Badakit ama ez dela guztiz zoriontsu. Herrira hurbiltzen den orotan, berak ez ditu herritarren begiradak ikusten, nik bezala, baina sumatzen ditu nola-hala. Kalean oinez goazela, etengabeak dira xuxurla eta zurrumuruak batak besteari belarrira, gurutzatu ondoren atzera begira gelditzen direnak... «Aita ez dakit nor dudana, ez, eta zer?» pentsatzen dut askotan. Horregatik, akaso, ama ez da askotan herrira joaten.

Ez da erraza izango berarentzat noski, baina

harrigarria da nola moldatzen den egunerokotasunean. Etxean ederki asko moldatzen da. Kozinatzen, ukuiluko lanak egiten, tratuan ere ibiltzen da... Nik miresten dut ama, eta bera zorionsu ikusteagatik ordaindu ere egingo nuke. Zertan ez dakit, baina lanean ere hasiko nintzateke gaur bertan bera lasaiago ikusteagatik.

Bihar Rafaela Donostiara doa. Agian, amari ezer esan ez eta berarekin joango naiz. Ziur han lan egiteko aukera gehiago ditudala.

Arratsaldean, zenbait baserritako arropak garbitzen ibili naiz. Behintzat, pezeta batzuk irabazten ditut horrela. Iluntzean, taloak egin ditut afaltzeko.

Mahaian eseri gara eta hain urduri nago ez daukadala ia goserik ere. Ama engainatzekotan-edo, eskuak plateretik ahora mugitzen ditut, soinuak esajeratzen, baina esku hutsik.

Normala dena baino azkarrago amaitu eta ohera noala esan diot.

—Ondo lo egin, bihotza. Biharkoak prestatu hitzan, eskolara joateko: zapatak garbitu, kartera prestatu...

—Bai, ama. Bihar arte.

Eztarrian sekulako korapiloa dudala, ukuilu paretik pasatzean, talo-soberakinak txerriari bota eta, eskailerak igota, ohean sartu naiz zuzenean. Ez naiz Donostiara joango. Bai, bai, joango naiz... Ziur han lantxoren bat egiteko aukera sortzen zaidala. Baina amari zer esango diot? Kezkatu egingo da...

Kezka guztiei jira eta bira, azkenean, loak hartu nau. Eta baita argitu egunak ere. Oilarra hasi da kantuan eta, jauzi batez, ohetik atera, jantzi eta Rafaelarengana joan naiz korrika batean. Ez da posible! Lo hartu al dut? Rafaela justu-justu harrapatu dut, baserritik ateratzen.

—Rafaela! Rafaela! Itxaron! Hirekin noan! —diot xuxurlatzen.

—Balbina? Zer egiten dun hemen? Segi izeaion eskolara! Ez esan txorakeriarik!

—Ixo, hirekin noan Donostiara, trenez. Asteak zaramatzen zentimoak gordetzen. Bazeukanat joan eta itzultzeko adina. Utzidan hirekin joaten, mesedez. Amari sorpresa eman nahi zionat.

—Bueno, bale... baina azkar! Goazen! Zortzietako trenak alde egingo zigun-eta.

Sabeleko tximeletak ezin ezkutatuta, irribarre handi bat marraztu zait aurpegian. Rafaelari zeharka begiratu eta bera ere irribarrez doala ikusi dut. Korrika goaz estaziora.

Iritsi da trenari Orioko geltokira, eta nik ezin ezkutatu urduritasuna.

—Hau segurua al dun?

—Balbina, mesedez! Oso segurua!

Traka-traka egon gara trenean ia ordubetez. Txundituta gelditu naiz leihotatik ikusten den paisaia, baserri, eta jendearekin. Geltokietako bizitzarekin. Txikiagoa nintzenean, joaten nintzen geltokira tarteka, trenari pasatzen ikustera, eta trenean igo eta jaisten zirenen bizitza nolakoa izango ote zen imajinatzen pasatzen nuen denborara. Baina behin ere ez nintzen bertan muntatu. Zeinen ederra!

Iritsi da trenari Donostiara, halako batean, eta hunkituta gelditu naiz hango mugimenduz: dendak, tabernak, jendea, kale dotoreak... Rafaelari laguntzen goiz osoa pasatu dut bertan. Batetik bestera ibili gara: Bulebarrean, alde zaharrean... errekadu bat eta beste bat eginez. Bati dirua jaso, besteari eman; bati telak erosi, besteari ekarritakoak saldu... Rafaelak bere bezeroei ezer ez esateko agindu dit, berak esango diola bakoitzari esan beharrekoa. Eta ni, lehengusin txiki eta txintxoaren gisa, aginduak betez, isil-isilik egon naiz goiz osoan, ikusten, ikasten, eta bizitza duten kale hauek guztiz maitemintzen.

Janari-denda txiki batean sartu gara eguerdi partean. Laster trenari hartu behar dugu, eta Rafaelak esan dit eguneko azken errekadua dela. Bezeroa aurkeztuko omen dit, eta apur bat urduritu naiz. Ea itxura ona dudan galdetu diot eta ilea pixka bat konpondu dit. Lasai egoteko esan dit, erraza izango dela honekin tratua egitea. Eskerrak Rafaela daukadala. Konplizitate itzela daukagu elkarrekin. Elkarri irribarre egin diogu.

Dendan sartu garenean, bibotedun gizon handi bat dago mostradorearen atzean. Amantal zuri bat darama, eta karratudun galtzak. Rafaela ezagutzen duela nabaria da, haren biboteak kurba zabala marraztu baitu sartzeko gaitue-
nean.

—Hau Balbina da, nire lehengusina, eta

Donostiara etortzen hasiko da. Esnea ekarri dezake, etxekoa, Oriotik. Probatua duzu, gogoratzen?

—Ez iezadan esan! Albiste zoragarria dun hori! Egunero... utzi pentsatzen... bai! Egunero marmita bat beharko dinat, nire bezeroak hornitzeko. Zenbatean salduko didan?

Mutu gelditu naiz, egunero marmita bat! Ikaragarria da hori. Ez dakit gure behiek hainbeste esne emango duten. Eta amak zer esango du? Egunero Donostiara treneko txartela ordainduta? Azkar batean ditudan matematika-jakituria txikiak praktikan jarri eta... Orion marmita handiak 30 zentimotan saltzen baditut, eta trenaren joan-etorria 60 zentimo kostatu bazait... Zerbait irabazi beharko dut...

—Pezeta eta hoge! Pezeta eta hoge, marmita handia, etxeko esne freskoarekin.

—Pezeta eta hoge? Ez, ez... Horretarako, Igeldokoarekin jarraituko niken. Pezeta bat.

—Pezeta bat... Tira, ondo da: pezeta bat.

—Astearterako ekarriko al didan lehenengo?

—Ba... ba... Bai! Asteartean ekarriko dizut lehena.

—Ondo zegon. Rafaela, hire lehengusinak badin komertzianta-planta galanta, hain gaztetxo izateko!

—Ez dakizu ondo, Antonio... Ez dakizu ondo... —dio Rafaelak, eta denok barre egin dugu.

Treanean goaz berriro Oriora. Sekulako nahaste-borrastea dut barruan. Alde batetik, poza, emozioa, zorutzen saltoka hasteko gogo. Egunean marmita bat saltze! Non eta Donostian! Bestetik, aldiz, beldurra. Nola azaldu amari, eskolara joan beharrean Donostiara joan naizela, 60 zentimo ordainduta, eta egunero joango naizela orain? Utziko al dit? Baietz pentsatzen dut, egunean marmita bat kolokatu izana itzela baita etxeko dirutarako.

Rafaela eta biok pozez zorutzen gaude, eta treneko bidaia osoa kontu-kontari etorri gara, amaren erreakzioa zein izango den asmatu nahian, estrategia prestatuz. Trenaren mugimenduak trakets samarrak dira, baina gustatu zait trenean bidaiatzea.

Etxera iritsi naiz eta ama sukaldean dabil, patata egosiak zuritzen. Bere kopeta iluna eta

muturrak ataritik ikusi ditzaket, sukaldea ilun dagoen arren. Sumatu nau. Non egon naizen galdetu dit, eta egia esan diot. Egia hutsa.

Hasieran, beltza bihurtu da dena. Ama asko haserretu da eta eskolara ez joan izana aurpegiratu dit. Oraindik aukera aprobejatu beharko nukeela eta urte pare bat gehiagoz eskolara joaten jarraitu. Idazten eta irakurtzen behintzat ondo ikasteko. Etorkizunean hasiko naizela lanean. Baina bere hitzetan zalantza-kutsua ere sumatzen dut.

Negoizatzen saiatu naiz, beste behin, esanez eskola eta gero eramango diodala esnea Antoniori, arratsaldeko trena hartuta. Berak ez du garbi ikusi hasieran, baina egunero zentimo horiek biltzen joatea beharrezkoa dugu. Aitaren faltan eta ama itsua izanik, familiarengatik ez balitz, ez genuke ahora eramateko askorik izango.

Ama negarrez hasi zait, mahaian eserita. Inpotentziaz, tristuraz. 10 urteko alaba egunero zeregin horretan hasteak eta bera gai ez izateak horrelako lanik egin eta etxera eskupekoak ekartzeko inpotentzia ikaragarria sorrarazten dio. Baina, era berean, badu esperantza txiki bat, konturatu delako zer ilusio eta pozez kontatu diodan Donostiako berri. Hango dendak, Antonio dendakoaren galtza karratudunak, gurdiak, txokolateak, hango kale eta eraikinak. Eta desesperazioa pixkanaka baretzen joan zaio. Ekaitzaren ostean barealdia datorrenean bezala, bere bekainak ere gutxinaka erlaxatuz joan dira, irribarre bat edo beste ere ikusi diot nire abentura kontatzean eta, halako batean, baimena eman dit. Baina eskola ez uzteko baldintzarekin. Aulkitik jauzi batekin altxa eta besarkada indartsua eman diot. Zoriontasunak bildu nau orduan, oso osorik. Azkenean, etxean benetan lagunduko dut. Ez dugu senar eta aitarik behar.

5 urte geroago...

—Ama, trena galduko dugu! Hirugarren aldiz ari zara ilea jasotzen... nahikoa da! Ederra zaude eta!

—Bai, Balbina, bai! Minutu bat bakarrik.

Donostiara goaz ama Carmen eta biok. Esnea eramaten hasi nintzenetik, pixkanaka, oriotarrak nire bidaiak aprobejatzeko aldera, errekadu txikiak

eskatzen hasi zitzaizkidan: denda bateko botoiak, besteko txapela, besteko abarkak... Eta ni, egunero, joan-etorrian errekaduak egiten nabil: bai oriotarrei eta baita donostiarrei ere.

Donostiarrei txipiroiak eta esnea eramaten dizkiet joatean, normalean. Eta, etortzean, gehienetan, arropa eta osagarriekin bueltatzen naiz: pijamak, zapatak, aterkiak... Haur bat edo beste ere eraman behar izan dut, noiz edo noiz, herri batetik bestera.

Eskola duela pare bat urte utzi behar izan nuen, lanari lehentasuna emateko. Etxean behar-beharrezkoa da nire ekarpena eta, egia esan, ondo doakit. Rafaela sare konpontzen hasi zen eta nik hartu nituen haren Donostiako lanak ere. Neskame-lanarekin bateratzen dut rekadistarena eta, Donostiarako enkargu gutxi ditudanean, batzuetan, ama nirekin etortzen da.

Ama Donostian zoriontsu da. Han ez du inork marmar egiten pasatzen ikusten gaituenean. Han inork ez gaitu ezagutzen, eta lasai asko ibiltzen da. Ikusi ezin dezakeen arren, sumatzen ditu hango kale eta jende dotoreak. Bere jarrera

aldatu da, baina baita Orion ere. Badirudi errealitate berri hau ezagutzeak bere egoera erlatibizatzen lagundu diola. Eta orain ez dio axola jendeak marmar egiteak. Bera zoriontsu da, eta baita ni ere.

Jarraituko dut, eta jarraitu nuen, oriotarrei errekaduak eta enkarguak egiten, egunero Donostiarra trenez joan eta etorrian. Hala atera nuen familia aurrera, lan hemen eta lan han, borrokan, kasta handiz, eta tratuan beti. Tabernan zerbitzari, neskame, arropak garbitzen, eta, batez ere eta urte gehienetan, rekadista. Nire negoziaketarako dohainak aski ezagun bihurtu ziren bi herrietan eta, makina bat urte geroago ere, bilobak erosketetara joatean, Donostiako dendetan bezero kuttunak izaten ziren, Balbina Txikiren bilobak zirela esanez gero.

Ipuin honetarako inspirazioa Balbina Txiki rekadistaren istorioa izan da, baina gertakariak eta datuak asmatuak dira.

ON ETA IN

Garazi Urretabizkaia

Eta hor jarraitzen duzu, zure burua nire bularraren kontra jarririk, ametsen munduan murgilduta ume txikien antzera... Kopetan musukatu zaitut lehenik, masailean gero, egun onak xuxurlatu dizkizut belarrira goizeko ahots lakarrak baimentzen duen doinu onenarekin. Baina ezer ez... Irri txiki bat baino ez zaizu atera eta ametsen munduan jarraitzea erabaki duzu. Hain zaude ederra lasaitasuna adierazten duen aurpegi horrekin... Burua kontuz eskuen artean hartu eta burukoan ezarri dizut, irri misterioitsu horrekin jarrai dezazun. Kalera noa txakurrarekin, segi ametsetan lasai eta, itzuli aurretik esnatzen bazara, itxaron iezadazu ohean, lasaitasun aurpegi eta irri berarekin... Laster helduko naiz, oso laster...

Itzuli gara eta, pronostiko guztiak betez, lo jarraitzen duzu. Hain erraza da zurekin kinielak asmatzea! Ez zintuen, ba, eder hori, bart gaueko round-ak KO utziko, ezta? Zin dagit ez nuela Luis Resto bat egin... Baina ez, borrokalaria zara, espero baino lehen irekiko dituzu berriz ere bizia darien zure begi argiak. Bitartean, zure baimenik gabe, dutxa bat hartzeko ausardia izan dut. Hain izan da gozagarria ur gezaren tantek atzoko izerdi gaziaren arrastoekin bat egin duten une hori! Eta denbora iragan dut bertan, mimo handiz oraindik zure usaina zerion hankarte garbituz, buruan Sabinaren kantuak etengabe beren erritmoan zebiltzan bitartean. Hortzak ere garbitu ditut, bakoitzaren maniak... Eta hemen naiz, berriz ere logelan. Lotarako erabiltzen dudun zetazko kamiseta soinean, baina ez besterik... Bozgorailuetan *Rythm and Blues* zerrenda jartzea erabaki dut, eguna lasai eta ondo has dezagun... Hemen lehen abestia: Lou Reed-en *Walk on the Wild Side*.

Eta, horrela, burua 70eko hamarkadako Amerika ilun baina, aldi berean, koloretsu hartara hegan doala, zure ondoan etzan naiz. Nire esku

txiki eta leunekin izarrak marraztuko ditut zure bularreko ile ilunen artean, goxo, mimoz, zure arnasa gora eta behera sentitzen dudun bitartean. Eta ilargiak ere marraztuko ditut, eta gazteluak, eta hondartzak, eta bidegurutzeak... beti nahi duzun bidea har dezazun. Eta zuk begiak ireki artean, esku bat zure gainean jarririk, bestearekin behin irakurri nuena egiteari ekingo diot: *En tiempos de turbación, másturbación...*

Eta, bat-batean, nire sumendia lehen orgasmoarekin lehertzeaz zelarik, begiak ireki dituzu. Pixkanaka zure burua nigana gerturatu duzu eta oraindik atzo gaueko gozatuaren usaina darion mingain punta zorrotz bezain jolastiarekin nire ezpain hertsia zabaltzeari ekin diozu. Denbora geratzeko gaitasuna izan duen muxu batean murgildu gara, jolasti, boteretsu, goxo. Eskua hankartetik atera dut zure aurpegia laztantzeko. Zuk gauza bera egin duzu. Muxuak gorputz tenperatura igotzearekin batera bideratu duzu nire eskua zure hankartera. «Esnatzen ari da» esan duzu esnatu berritako fraide ahotsarekin. «Sentitzen duzu?» Buruarekin baiezkoa eman dizut mingainarekin zure ezpainak dastatzen ditudan bitartean. Pasioaren indarrak bereganatu nau, barrunbeek eztanda egiteraino. Laztan eta laztan artean zure hankarte jada guztiz puzturik den enborrari sendo heldu diot, ihes egin ez dezan. Zure gorputz osoa mihizatuz, beherantz noa desiraren atea gogoz kolpatu nahian. Espero bezala, ez duzu erresistentziarik jarri bidean. Gogoz heltzen dizkidazu bularrak beherantz noan bitartean, esku handi horiekin azalera osoa hartuz. Batzuetan goxo, besteetan indarrez, maite dudun bezala. Zure hankarte musukatzen hasi naiz, begietara begiratuz, plazerean nola murgiltzen zaren ikusiz. Pixkanaka, enborraren punta hartu eta ahora sartu dut; goxo lehenik, gogorrago ondoren. Bi eskuekin gora eta behera mugitzen dudun bitartean, zure bihotza nire

ahoa senti dezaket. Zure eskuekin ni laztantzeko ahaleginetan hasi zara, baina berandu, ez zara ondo iristen. Eta beherago jaitsi naiz, eta zure barrabilak ahoratu ditut desiraz, behatzarekin hauen atzealdeari masajea ematen diodan bitartean. Zure eszitazioa nire bihurtzen ari da pixkanaka. Buelta eman eta ahalik eta leunen nire hankarte zure aurpegian pausatu dut, batera goza dezagun. Zure mihia soma dezaket nire klitorian barrena, nire bulba goxoa goitik behera mihiztatuz. Behatzarekin nire barrua askatzen ari den likidoa hartu eta uzkia ukitzeari ekin diozu. Ezin izan dut oihi txiki bat ateratzea ekidin. Ukitu lasai, egin nazazu zure... Nahi duzunean eta nahi duzun moduan.

Zure gainera kendu eta hanka zabalik jarri naiz zure altzoan, lanarekin lasai jarrai dezazun. Hain zara abila... Guztiz utzi naiz eramaten. Fintasunez marrazten dituzu zortziak nire klitorian, beste behatzekin barruraino murgiltzen zaren bitartean. Ea gustuko dudan galdetzen didazu. Intziri batekin erantzuten dizut. Burutik heldu eta nigana ekartzen zaitut, muxuen ozeanoan berriz murgil gaitzen. Zure hankarte nirearen aurka igurzten duzu gogor, eta barruan zeinen goxoa izango litzatekeen imajinatzen dut. Eskuak heldu eta bururantz bideratzen dizkidazu, tartean ezpainetan, tarteka lepoan, tarteka belarrian muxuak uztartuz. Bat-batean, espero gabe, lepotik eusten didazu eta plazeraren paradisuan sentitzen naiz.

Ahal dudan bezala esaten dizut mesedez nire barnean sartzeko, zure zakila nire sentitu nahi dudala. Eta kasu egiten didazu. Badoa enbor zelataria zulo estuan barrena. Eta beste intziri bat ateratzen zait. Ahoa estaltzen didazu indarrez, bizilagunak entzun ez gaitzaten. Hasieran goxo,

gero bortitz, hor zabilta gora eta behera, zure eskuekin nire gorputz dardartia laztantzen duzun bitartean. Bat-batean bultzatu eta buelta ematen dut. Lau hanketara jartzen naiz, barruraino sar zaitezten. Maite dut, maite duzu. Erritmoa jaisten duzu, haziak helmuga oraindik hartu ez dezan.

Zure gainean jartzen naiz eta sekula sentitu ez dudan askatasun batez hasten naiz gora eta behera. Zaldi gainean egongo banintz bezala. Zure eskua hartu eta nire hankartera eramaten dut, bidai honetan masturba nazazun. Begiak ixten ditut, eta ireki, eta itxi eta ireki... Zein ederra den aske gozatzea. Eta ezin duzula gehiago esaten didazu, hazia iristear dela, ezingo duzula denbora luzez eutsi. Eta zure gainera jaisten naiz, eta nire gainera botatzeko erregutzen dizut. Eta nire mingain eta zure eskuaren laguntzaz estasira heltzen zara, nire gorputz osoa testigu delarik. Eta zure hazia hartu eta ahora eramaten dut, goxo, eta titi artera, eta niri begira zaudela eta ni zuri begira, nire gorputz osoan zehar barreatzen dut plazeraren elixirra. Eta masturbatzen jarraitzen dut, gogor, zure nekeak utzi artean eskuekin titiak ukitzen dizkidazun bitartean. Eta, supituki, ni ere helmugara heltzen naiz, intziri erreprimitu artean...

Izerdi jasaren erdian *Satisfyer*-a hankartetik atera dut enegarren aldiz. Hutsik dagoen ohetik altxa, ondo garbitu, eta mimo handiz gorde dut berriz ere mesanotzeko azken tiraderan, laster berriz esku artean izango dudanaren segurtasun osoz.

Zein gogorra den konfinamendua...

GOGOETAK

Nadhet Arruti

Han Martxelo! Euria itsasaldetik!

Gaur egun ez dakite bihar ze eguraldi egingo duen beren kabuz. Aia aldera begiratu eta Hernio azpian hodei zapal eta luzanga bat badago, Hernio punta bistan utziz, bihar euria. Hori ez da berria! Baina, ikasteko, entzuten jakin behar. Orain gauzak oso desberdinak dira. Gaur egungo gazteek ez dakite entzuten, dena dakitela uste baitute.

Ditxosozko internet! Seguru zer den ere ba ote dakite? Galdera guztien erantzunak omen dauzka. «Edozer idatzi interneten eta beti agertzen da zerbait, aitona» esaten didate maiz bilobek. Baina nola jakingo du ba dena? Gainera, ez dago zertan dena jakin beharrik!

Nahiko lan izaten genuen guk! Ikasi beharrekoak lanean edo mahai inguruan ikasten genituen eta horrekin aski zen. A, ze tertuliak garai batean izaten genituenak. Helduek hitz egiten zuten, noski, eta gazteok entzun: Izetako idiek irabazi zutela berriz ere Aiako dema... zer egiten ote zioten Itxaspen tomateei urtero herriko uztarik onena izateko... halako baserriko morroia alperra baino alperragoa zela... atertzen zuenean holako baserritara joateko hitza emana zutela belar biltzera joateko... datorren ilbehera arte itxaron beharko zela sagarrondoak kimatzeko... eta horrelakoak.

Gogoan dut oraindik aitak lehen aldiz idi-parea erostrera joateko eskatu zidanean Tolosako ganadu-feriara. Hartan, 15 urte inguru izango nituen. Ardura handia zen hura, baina pozik nengoen ni hautatu ninduelako. Nigan konfiantza zuela esan nahi zuen horrek, nahiz eta inoiz ez zidan esaten. Gauza horiek lehen ez ziren esaten, erakutsi baizik.

Han joan nintzen, beraz, goizean goiz, amak prestatutako hamaiketako zapi batean bilduta. Autobusa hartu behar izan nuen lehenik Lasarteraino, eta handik trena, Tolosara. Bidea luzea izan arren, eskertu egin nuen egun batez

baserriko lanez ahaztu ahal izatea, gutxitan izaten baikeuen horretarako aukera. Baserrian beti zegoen zer egin. Goizean goiz baratxuri-zopa hartu eta behiak jeztetik hasi eta eguzkia sartu arteko lana izaten genuen egunero. Gogoan ditut, bazkaritarako geratzen ginenean, mahai gainean jarri burua eta egiten nituen hamar bat minutuko lo-kuluxkak. Neke guztiak uxatzen zituen horrek!

Behin Tolosara iritsita, gure aitarekin tratuan ibiltzen zen gizonarengana jo nuen, Patxi Goyarengana. Hark ondo zekien noren semea nintzen ni. Hori garrantzitsua zen orduan, aitak idi-parea aukeratu eta baserrira ekartzeko agindu baitzidan eta astebete beranduago berriz joan beharko bainuen Tolosara idi-parea ordaintzera. Garrantzitsua zen hitzezko familia ginela jakitea, beraz.

—Eguerdi on. Gaur bakarrik bidali al haute, gazte? —galdetu zidan, barre txikia ahoan zuela. Gizon handia zen. Mahoizko galtzak eta abarkak soinean zituen beti eta Tolosako feriako ganadurik onena edukitzeko fama zeukan.

—Bai, gaur ezin izango da aita etorri eta berorrek daukan idi-pare onena erakusteko esan dit —erantzun nion, kikildu gabe. Egokiak ez ziren idiekin itzuliz gero, aitak niganako konfiantza osoa galduko zuen eta oso garrantzitsua zen niretzat gizon hark ni aintzat hartzea.

—Hauexek ederrak! Biak gazte askoak dituk, baina ez horregatik indar gabeak!

—Besterik badauka berorrek? —ondo ikasia nuen nik erakutsitako lehenarekin ez geratzen. Jakina zen saltzaileek beti zeukatela gainetik kendu nahi zuten abereren bat eta haiek gorai patzen saiatzen ziren beti, ea norbaitek eramaten zituen. Beraz, banekien aurrenengo idi-pare hura ez zela Oriora nirekin etorriko.

—Bai, noski! Erakutsiko dizkiat, baina bi hauek bezalakorik ez! —eta beste bi idi-pare erakutsi zizkidan.

Denbora hartu nuen haiek ondo aztertzeko: ea zer moduzko ilea zuten, ea gaitzik bazuten agerian, ferrak jarriak zituzten, ahoa, giharrek... Erakutsitako bigarren pareta hautatu nuen, azke-
nean.

—Hauek zenbat? —lehenbailehen itxi behar nuen tratua, ni konturatzerako gizon haren postua jendez bete baitzen. Bidanitik zetozen aita- seme batzuk ere idi bila zebiltzan eta beldur nintzen haiei salduko ote zizkion.

—15.000 erreale —erantzun zidan, irmo.

—Begira, badakit idi ederrak direla, baina ez daukat hainbeste diru. Oriotik nator eta ezin nahiz esku hutsik itzuli. Berorrek badaki beti postu honetan erosten dugula ganadua. 14.000 erreale eskainiko banizkio?

Gizon hark bazekien zuen famari buruz, baina, Tolosako ganadurik onena edukita ere, gizon jatorra eta zintzoa zela banekien. Aitak behin, Tolosatik bueltan, erortzear zegoen Alegiako baserri batean jaio zela Patxi Goya esan zidan. Miseria gorrian bizi izan zirela beti, kokortu eta azokan saltzen hasi zen arte. Baserriak diru gutxi irabazteko aukera ematen zuela ohartuta, abereak saltzen hasi zen plazaren bazter batean, saltzailerik ospetsu eta entzutetsuena bilakateraino. Horregatik, tenteletik ezer gutxi bazuen ere, estualdian zebilenari laguntzeko prest agertzen zen oilo bakarren bat oparituta bazen ere

—Datorren larunbatean ordainduko nioke, gainera, Nire hitza du berorrek —nabarmendu nion setati.

Pentsakor geratu zen une batez, baina, azke-
nean, eskua eman eta nik hautatuko idi-pareta atera zuen itxuratik. Haiek soka batekin lotu eta abiatu nintzen.

Tolosatik urrundu eta behin mendi aldean nengoela, hamaiketako atera nuen. Aspalditik nuen tripa-zorria, baina egun guztirako horixe besterik ez neukan. Amak gustura jarriko zidan zerbait gehiago, baina asko ginen baserrian eta urte hartako uzta ez zen gure onena izan. Idi haiek onak baziren, nik uste bezala, beste baserrietako lurra goldatzen aterako genuen falta genuena urtea ondo bukatzeko.

Baserrira iritsi nintzen ilunabarrarekin batera. Patata ereiten ari ziren familiakoak. Aita gustura geratu zen nire aukeraketarekin, eta ni gusturago!

Garai hartan 9 eguneko tartea izaten zen ordainketak egiteko, baina nik, hurrengo larunbatean, dirua eta hamaiketako zapian ondo jaso eta Tolosara joan nintzen, zorrak kitatzera. Patxik eskerrak eman eta kafe bat hartzera gonbidatu ninduen.

—Aitona! Bazkaria prest dago! Sukaldean gaude zure zain! —nire pentsamenduetatik esnatu eta mahai ingurura batu naiz.

Nire gaztetasuna aspaldi ahitu zen eta belau-
naldi berrien buruhausteak entzuteari ekin diot babarrun gorriei koilararekin bueltak ematen dizkiodan bitartean, hozteko.

Epidemiaren egoera berri honek ezarritako askatasun faltaz kezaketen dira. Horrela ezin dutela parrandarik egin eta ezin dutela jende berria ezagutu. Bestetik, ikasten pasatako urte guztiak alferrik izan direla, bilatzen dituzten lanen lan-baldintzak prekarioak direlako. Lotsagarria omen da lanera joan ahal izatea, baina erreala ikustera, aldiz, ez. Kapitalismoaren puzzleko pieza batzuk besterik ez garelako erakusten omen du horrek, eta abar.

Nire barrurako pentsatu dut ez dakitela ondo zein zorte duten. Ni jaio nintzen baserri berean ari gara babarrun-jana egiten. Baina nire oroitzapenak, ordea, guztiz desberdinak dira.

Itoginez beteriko baserria zen eta, ekaitz gogorra zegoen bakoitzean, teilatua eroriko ote zen beldurrez ibiltzen ginen. Sukalde ondoko ukuiluari esker, logelak abereen berotasunaz berotzen genituen eta goizean goiz sukaldera kandela eskuan sartzean, zoruak beltza zirudien labezomorroz josita.

Nire andrea eta biok erosi genion baserria jauntxoari. Hark ezarritako errentak itota, hobe genuela geureganatu pentsatu genuen. Nire bizitza guztiko proiektua izan zen hura, eta aita zenak burua altxatuko balu, ez zuen sinetsiko baserri bera denik.

Hala ere, garaian garaikoa. Orain gazteek ekartzen dituzte berriak mahai ingurura eta zaharrek baino gehiago dakitela dirudi. Presaka bizi dira, ordea, eta denbora falta arazo bat dela diote. Nik Tolosara iristeko behar nuen denbora

bera behar dute, ordea, Ameriketara hegazkinez iristeko. Nola demontre ulertzen da hori?

Bizitza guztia aurretik duten gazteak denbora faltaz itota eta, aldiz, egunak kontatuta dituen agure zahar hau, lasaitasun bila. Hau duk, hau!

Igandero hanka hutsik jaisten ginen mezetara, igandetako abarkak puskatzeko beldurrez, eta orain, berriz, zulodun arropa erosten dute; hori omen dago modan.

Horri lotuta, bertso bat etorri zait gogora.

—Aizue, familia! Ia otorduro abesten dizuet bertsoen bat eta nahi al duzue oraintxe oroitu zaidan bat abestea?

—Bai! Baina itxaron, aitona: mugikorrarekin grabatuko zaitut!

*Oraingo neskatxa gaztien jantzi sobrantiak dira txokantiak:
espaldetako poltsak, cuello mudantiak,
txambra eta abriguak, gona bolantiak,*

*zapata koxkordunak, botoi brillantiak,
buruan mantilla ta eskuetan gantziak.*

—Aitona, hori askotan abestu diguzu! Bota beste bat, gustura entzuten zaitugu-eta!

—Ongi da! Juan Krutz Zapirainen bertso bat abestuko dizuet. Ehun urtetik gora ditu, baina ederki gogoratzen dut oraindik ere!

*Orain ehun urteko hainbat gizon abil,
ez baziraden hil,
bat txoratu liteke munduan balebil.
Oraingo tren ta tranbi, eta automobil,
hitza ere noranahi alanbrian dabil,
lehengo bidez gezurra besterik ez dabil.*

Bazkalostean, lo-kuluxka bat egitera joan aurretik, zelaira irten naiz. Martxelok ez du inoiz huts egiten: badator euria itsas aldetik!

ZURE AMONA GARAIRA EGOKITZEKO GIDA

Ane Etxabe Usandizaga

ZERTARAKO DA GIDA HAU?

Agertu al du zure amonak sekula mugikor berriekiko interesik? Esan du (ez inbidiarik gabe) ez dakiela familian zer gertatzen den whatsappk ez duelako? Iruditzen zaizue itxialdian gustura egin izango lukeela bideodei bat edo beste? Bada, gida hau zure familiarentzat soluzioa da!

NORI ZUZENDUA DAGO GIDA HAU?

Biloba gazteari.

Askok pentsatu lezake, gida hau izeba Mirentxu¹ zuzenduta dagoela, izeba Mirentxu baita aitona-amonez arduratzen dena. Baina, kasu honetan, komenigarriagoa iruditzen zaigu zure amona teknologietan eguneratzearen arduraduna zu zeu bihurtzea. Badakigu izeba Mirentxuk

pazientzia gehiago duela —seguru asko, baita gogo gehiago ere—, baina zuk badakizu izeba Mirentxu, batzuetan, trabatu egiten dela aplikazioekin eta ez dakiela bideodeietarako gonbitak bidaltzen. Beraz, animo, eta hartu lasai, burutzera zoazen bidea ez da lan erraza eta!

ZEIN MATERIAL BEHAR DUGU?

Smartphone-a eta zaku bat pazientzia (jatekoak ez, bestelakoa).

PROZEDURA

Lehen urratsa

Lehenik eta behin, amonaren etxera jo beharko duzu telefono berria aurkeztera (azkena joan zinenetik denbora asko pasa bada eta zure amonaren helbideaz gogoratzen ez bazara, galdeiozu helbidea familiakoren bati).²

Bigarren urratsa

Badaude amona batzuk, lotsa edo beldurra medio, telefono berririk behar ez dutela esan eta smartphone-ari uko egiten saiatuko direnak. Gukzenbait erakartze-teknika probatzea gomendatzen dugu (txantaje emozionalera jotzea da modurik zuzenena, baina gure agentziak ezin omen du horrelakorik gomendatu). Amonarekin izango duzun elkarrizketa modu sinplean jorrazteko, hona hemen lagungarri izango dituzun adibide batzuk:³

—Baina, baina... adin honekin eta altura hauetan, nola hasiko naiz ba ni horrelakoekin?

—Zergatik ez, ba, amona! Inoiz ez da berandu ikasteko! Oso erraza da.

—Ez dut asmatuko traste zahar horiek nola funtzionatzen duten!

—Jakina baietz, amona! Nik erakutsiko dizut. Oso erraza da!

—Zertarako behar dut nik garai hauetan horrelako bat?

—Ba ez dakigulako noiz ahalko dugun elkartu familian, eta elkar komunikatzeko.

Elkarrizketa katramilatzen hasi dela antzematen baduzu, MOZTU. Pausu hau garrantzitsua da: elkarrizketa luzeetan zure amona entrenatua dago zu baino eta irabazteko aukerak izan ditzake. Beraz, hasi zaitez zuzenean azalpenak ematen (gogoratu kontuan hartzea momentuko

etxeratze-agindua zein ordutan ezarrita dagoen; adi ez bazaude, hurrengo egunera arte harrapatuta gera zaitezke).

Hirugarren urratsa

Azalpena ematearen zatia norberak egokitu beharko du bere amonaren abilezietara. Amona batzuek badakite, adibidez, pantaila ondo ukitzen sakatu nahi duten lekuan; beste batzuk, ordea, oinarrizko behatz mugimendua lantzetik hasi beharko dute. Gisa honetako elkarrizketak ohikoak direla ikusi dugu:

—Amona, sakatu hemen whatsapp irekitzeko.

—Horrela?

—Ez, horrela ez! Jarri behatza gainean eta gero kendu.

—Ari naiz!

Hartu arnasa sakon. Ez da zure amona tuntuna denik; kontuan izan inoiz ez duela horrelakorik egin. Ez epaitu; ziur zu behin baino gehiagotan jardun zarela sukaldean eta oraindik ez duzu lortu zure amonaren arrain-zopa egiterik.

Horrez gain, azalpen-prozesura iritsi aurretik, zuk zeuk egokitu beharko duzu telefona modu errazean erabilia izan dadin eta aurrez erabaki zer den erakutsi nahi duzuna.

Momenturen batean, amorrua sentitzen hasiko zara zure barnean: zure amonak erdia ulertzen ez dizulako, egiten asmatzen ez duelako edo xehetasun txikiena ere galdetzen dizulako. Hau da zure etxera itzultzeko momentua (ikusi izan dugu gazteek modu txarrean erantzuteko joera dutela egoera honetan topatzen direnean, erretiratzea erabakitzen ez badute).

Laugarren urratsa

Hurrengo egunean itzuli berriz amonaren etxera eta jarraitu irakasten (amonarenera ez joateko aitzakiak topatzen saia zaitezke, baina, COVID egoeran, kostatu egingo zaizu).

Laburbilduz, hau da egin behar duzuna:⁴

• Modu sinplean azalpenak eman.

• Aurrena zuk egin, gero berari eskatu.

• Saiatu adibide ugari jartzen.

• Hiztegia zaindu (%0.05eko probabilitatea dago zure amonak emoji eta app hitzak ezagutzeko).

Bosgarren urratsa

Hau da arreta jarri behar diozun beste gune bat: erabileraren inguruko trebakuntza lortzen duenean, whatsapparen eta mugikorren kulturaren murgiltzen lagundu behar diogula.

Esaterako, amona askorengan ikusi dugu barre malkoak dituen aurpegitxoak eta negarrez dagoena nahasten dituztela. Aurpegiarekin espresioak esajeratzea bide ona izaten da, (gogoratu ez diozula oraindik bideoa grabatzen erakutsi, ez dago arriskurik).

Seigarren eta azken urratsa

Azenik, kontuan izan, erabili ahala ere, gauzak zuzentzen joan beharko zarela; idazten duenean, ordu txikietan bideodeia egiten dizunean, bere errezeta berrien 50. argazkia bidaltzen dizunean... (Adibide hauek jartzen ditugu, damutu egingo zarela argi uzteko).

Ikasketa- eta hobekuntza-prozesuek jarraitu egingo dute, baina, ZORIONAK! Lortu duzu helburua!

AMONA GEHIEGI TREBATZEAREN ARRISKUAK

WHATSAPPEAN DENBORA GEHIEGI
PASATZEA ETA MEZU EZEGOKIAK

ZABALTZEA (LAGA EGOERA IZEBEA
MIRENTXUREN ESKUETAN)

INTERNETEN BILAKETAK EGIN ETA EGIN
HASTEN BADA, BALITEKE MUNDUKO
GAIXOTASUN GUZTIAK DITUELA
PENTSATZEA (LAGA EGOERA IZEBEA
MIRENTXUREN ESKUETAN)

EGUNERO-EGUNERO FAMILIA OSOARI
IDAZTEN JARDUTEA, BIDEODEIAK EGIN
NAHI IZATEA ETA, OROKORREAN, ZUEN
ONGIZATEAREN INGURUKO GEHIEGIZKO
KEZKA ERAKUSTEA (ABISATU DIZUGU
PROZEDURAREN AMAIERAN DAMUTU
EGINGO ZINELA)

AMONAK LIGATZEKO APLIKAZIOAK
PROBATZEA ETA BERTAN ARRAKASTA
IZATEA (EZ LAGA EGOERA IZEBEA MIREN-
TXUREN ESKUETAN; URDURI JARRIKO
DA. ESAIOZU AMONARI ONDO
PASATZEKO)

KONTAKTATU GIDAREN EGILEA

informazioa@gidaon.eus
gidaon.eus

1.- Baliteke zure izebaren izena zehatz-mehatz asmatu ez izana, baina estatistiketara jo dugu eta probabilitatea handiak daudela uste dugu. Lurdes edo Arantxa ere izan daitezke eta, zure familian halako izenik egokitzen ez bada, libre zara gidako izena zuk zeuk ordezkatzeko.

2.- Pauso hau gauzatzeko, momentuko COVID egoera eta araudia errespetatzea eskatzen dugu (sarri aldatzen da eta oso lioso da; baina, momentuz, Eusko Jaurlaritzak ez digu horri buruzko gidarik enkargatu).

3.- Gogoratu errefortzu positiboak asko laguntzen duela beti, adin guztietan.

4.- Pausu hau behar adina aldiz egin beharko duzu, hau ere amonaren abileziaren arabera baina (askotan erreplikatzen bada, kontuz ibili amonak emandako janarekin gehiegi gizendu gabe).

PARENTESIA

Ainhoa Mujika

Doinua: Prantzisku zer dakarrek

NEGUA

1
2020
urte berezia,
mila emozioen
sinestesia,
urtarrilean Txina
aldean hasia,
mundu osoan barna
abailan hazia.
Herio bizia,
osasun krisia,
apokalipsia!
Inoiz itxiko al da
parentesia? (Bitan)

UDABERRIA

2
Ez du salbuespenik,
ez klase, ez diru.
Denok gara sarraski
honen testigu.
Edonorentzat izan
daiteke kastigu,
eta aske sentitu
garenak beti gu,
etxean gatibu,
preso dirudigu.
Ezer ez dakigu!
Udaberria zeinek
lapurtu digu? (Bitan)

3
Mundua gelditu da
inoiz ez bezala.
Albisteei so lastu
zaigu azala,
ta azaleratu da
gure arrakala:
denek ez dute jaso
etxean jornala.
Argi dago, ala?
batzuen ahala
desoreka dala?
Behintzat zer pentsatua
utzi dezala! (Bitan)

4
Maiatza aro berri
baten deiarra,
udari begirako
lehen irrifarra.
Berriz ikusi dugu
Orioko barra,
Anarriri kolpeka
itsaso suharra.
Baina arauen marra
ze muga nabarra...
Dut pena bakarra:
betetzeko zigorra
jarri beharra. (Bitan)

UDA/UDAZKENA

5
Datu gordinak ditu
errealitateak,
baina guztiok behar
gaitu kateak.
Osasunean soilik
ez daude kalteak.
Zabal ditzagun tentuz
pixkana ateak:
hondartzak, parkeak,
pubak, elkarteak,
eskaparateak...
Kalea ere behar
du gizarteak! (Bitan)

6
Ekar dezagun berriz
bizitza erdira.
Itxaspetik zeharka
Kukuarrira
igo ta egin salto
aurrera begira!
Aldatuko ahal digu
honek ikusmira!
Haizeak firfira,
ekiak distira,
olatuak tira...
Bizitza bizi duzun
une hori da! (Bitan)

7

Oporrak agortzeko
epe agorrila.
Udari ate joka
negu hurbila.
Askatasun egarriz
bete da Antilla.
Ez festa, ez bidaia,
gel ta maskarilla.
Uda giro hila,
Urte biribila...
Arrazoiak mila!
Birusa irailean
itzul dadila! (Bitan)

8

Iritsi da iraila,
bagoaz lanera!
Erantzunik gabeko
zenbat galdera!
Kalean elkartu sei
lagunetik behera,
baina hogeita hamar
ikasle klasera!
Guztiak batera
lau hormen artera?
Posible ote da?
Ez geneukala planik
ohartu gera! (Bitan)

9

Bigarren olatuak
emaro-emaro
braust harrapatu gaitu
eta akabo!
ZIUEk egin dute
oldean aldarro;
izuak hartu nahi du
gurean abaro.
Ta denak naufrago
neurri zorrotzago
batzuen itxaro.
Baina orain ardura
gure gain dago! (Bitan)

NEGUA

10

Parentesia ez da
oraindik itxiko,
ta asko daude txertoa
noiz iritsiko.
Joka dezagun zentzuz
neurrian neurriko,
baina doluan ere
ez gara biziko.
Giro larri, ito,
apokaliptiko
honi esan kito!
Hitzeman esperantza
ez dela hilko! (Bitan)

NEGUAN BERO

Garazi Urretabizkaia

Doinua: Haizeak bidali du

1
Solteroen bizitza
ohi dugu gogorra,
beti badira zenbait
txiste, broma, porra...
Nahikoa ez genun ta
sorpresa bat, horra!
Lehortea bihurtu
zaigu iraunkorra.

2
Distantzi soziala
guretzat kaltean,
amaraunak ditugu
jada hankartean,
muxu ta laztanetan
galdu beharrean,
silikonazko untxiak
ditugu aldean.

3
Lehen tabernan ginen
gustura mozkortzen,
begiradekin ziren
mezuak igortzen,
pixkat gerturatzer
ginen derrigortzen
eta horrela ere
ez genuen lortzen!

4
Orain internet bidez
egin behar dena,
bestela pasako da
arroza eta trenan.
Ene, ze presioa
argazkien dema,
tabernan ez geneuzkan
hainbeste problema.

5
Badoo, Jaumo, Meetic
Bumble, Loovo, Tinder...
sexu berekoentzako
Wapa, Scruff, Grinder...
Guztiak jaitsi ditut,
gainera bi bider.
Benga, oraingoan bai,
izango haiz lider!

6
Halako adina ta
halako altura,
begien koloreak
ere badu ardura,
erretzailea ez bada
ni nago gustura,
ta hiru karrerekin,
behar den modura.

7
Katalogoan zehar
a, ze ahaleginak,
badira burusoilak,
Chewbaccak, birjinak,
ta gero beste zenbait
moldean eginak,
exijentziaren ertzak
hain ditugu finak!

8
–Kaixo! –Aupa! –Zer moduz?
–Ni ondo eta zu?
Lehen kontaktu hortan
zenbat enbarazu.
Original usteko
txisteekin kasu!
Lehen txispan erreta
bukatuko dezu.

9
Pantailaz nazkatuta
itxi dut begia.
Ataka gaiztoa da,
hori da egia!
Abstinentzia degu
drastikoegia,
nahiago nuen izan
kuien biltegia.

10
Aurtengo pazientzia
daukat xahutua;
beherapenetan da,
antza, merkatua.
Egoera ikusita,
egin dut hautua:
Bakarrik segiko dut,
ez da bekatua!

ESKERRIK ASKO, DO RE NI!

Rosi Lazkano

Doinua: Norteko trenbideari

1
Esperimentu honetan parte,
ez probeta ta ez xagu,
gure ezaugarria bestea:
urte mordoak daukagu.
Nonbait musikak adinekoen
buruan eragina du,
gure garunak ez dakit baina
guk ederki pasa degu.

2
Erronka berri baten aurrean
nahiz eta jarri urduri,
zita orduan denok gogotsu,
bero-zapa edo euri.
Plazer gisako sentimenduak
zetozkigula dirudi,
piano-tekla zuri-beltzetik
bizi koloretsu guri.

3
Egunerokoa utzi eta
hartu artista papera,
bakarrrik ohituak egon arren,
dantzatu denok batera.
Esker-eskuin noraezean,
aholku eta galdera,
estuasanun gainetik beti
algara zaigu atera.

4
Hirurogeitik gorako tropa,
izenak eta izanak,
Laster harrapatu gaituenak
partekatzean imanak,
biluztu eta berriro jantziz
ilusioan sotanak,
lagun on-onak bihurtu gaitu
lehen ezagun ginanak.

5
Geure kana eta ximurrekin
erakutsiz nor gerala,
aurretik ere bai daramagu
bizipen-sorta zabala.
Hunkitu gaitun istorioa,
lagun-talde mundiala,
hilabetean kareleratu
degu kriston musikala.

6
Batak bestean babesak jaso,
laguntza eman elkarri,
gure hizkuntza, gure herria,
plazaren erdian jarri.
Astindu dira haritz zaharra,
Anarri eta Moilarri,
denok batera joanez gero,
lortzen denaren aldarri.

7
Garrantzitsuak sentitu gera
eta ez gaude ohituak,
animo-hitzak jaso ditugu,
txaloak, biba-oihuak...
Herrian parte izan nahi degu,
nahiz pausoak mantsotuak,
pixkat zailago eduki dezan
bakardadean mamuak.

8
Ustekabean ai, ze aukera
egin diguzun eskaini:
kantua, dantza edo testua,
jolas eta zeremoni.
Susto txikiak, malko tantan bat,
nonbait hau ere komeni...
Plazer hutsetik, harrotasunez,
eskerrik asko, DO RE NI!

BERANDU

Goiuri Unanue

Ilunabar batek
itsututa izan ninduen hainbat arratsez.

Urre koloreko izpiek sorgintzen ninduten.

Ez zion axola lainoek lausotzen bazuten,
ni begira niharduen.

Urre koloreko izpiek sorgintzen ninduten

Ez nintzen ohartu, aldiz,
Ilargi, atzean zinenik.
Ez nintzen ohartu iluntasunean,
argi ederrena zenuenik.
Ez nuen ikusi itzaltzen zindoazenik,
ez eta berriz harrotu zinenik.
Ez nintzen ohartu deika ari zinenik.

Urre koloreko izpiek sorgintzen ninduten.

Eta aurrean jarri zinen.
Ilunabarra eten zenuen...
Eki atzean utzi
eta zeure argia ikusi nuen.

Urre koloreko izpiek sorgintzen ninduten.

Beti atzean egon zinela ohartu nintzen,
begiratu zintudan,
begirada lausotzen zidan sorginkeria oro
desagertu arte.

Urre koloreko izpiek sorgintzen ninduten.

Baina beranduegi zen.
Hiltzen zindoazen,
zeure zilarrezko argia itzaltzen.
Baina ez nuen amore eman,
iluntasun ilunenean ere,
begira jarraitu nuen.
Eta esnatu zinen,
pixkanaka, baina esnatu zinen.
Eta ikusi nuen,
lausoturik ez ziren begiekin, ikusi nuen
nola gaua argitu zenuen,
zeinen ederra zinen.

NORMALTASUNA, ASKATASUNA ETA GELDIALDIA

Esther Arruti

Zer ari da gertatzen?

Normaltasun berri honek erotuta nauka.

Normaltasun berria?

Lehenkoa normala al zen, ba?

Zer da normala eta zer ez?

Zer ari da gertatzen?

Askatasun falta honek itota nauka.

Askatasun falta?

Lehen askeak al ginen, ba?

Zer da aske izatea?

Zer ari da gertatzen?

Geldialdi honek estututa nauka.

Geldialdi hau?

Lehen ez al ginen azkarregi ari?

Zein da erritmo egokia?

Zer ari da gertatzen?

Ez dakit oso ondo erantzuten,
baina geldialdi honek pentsatzera narama
eta bat-batean dena mantsoago doa,
eta ausnartzeko denbora daukat,
eta gauza txikiak baloratzen ditut,
eta presa badoa nigandik.

Eta bat-batean askeago sentitzen naiz.

Eta aske sentitzea ez al da normalena?